



Itziar Bartolomek eta Antton Monfortek Chufamix etxetresna «iraultzailea» asmatu dute: haziei, fruitu lehorrei eta zekaleei zuku ateratzeko lehen tresna ez elektrikoa.

# Naturatik edalontzira

Adrian Garcia

**O**rain arte landaretik eratorritako esnea kontsumitzeko erarik errazena zen etxe handiek merkaturatutako esne kaxak erostea. Norberak etxean egin nahi izanez gero, lanak hartu behar zituen edalontzi txiki bat betetzeko. Merkaturatutako robot garesti horiek erostea zen landare esnea etxean egiteko beste aukera. Egoera horretaz jakitun, Itziar Bartolomek eta Antton Monfortek landare esnea kontsumitzeko era astindu duen etxetresna asmatu dute: Chufamix. Haziak, zekaleak eta fruitu lehorrak era erraz batean zukutu eta minutu gutxiarik edalontzia betetzeko bide ematen du tresnak.

Oloa, garagarra, arroza, gari zuria, kalamua, alpistea, intxaurrak, urrak, almendrak... «Edozein haziri, fruitu lehorri edo zekaleri atera daiteke zuku tresna honekin», azaldu du Itziar Bartolomek.

Osagaiekin «jolasteko» aukera polita eskaintzen du etxetresnak. «Intxaurrari laranja zatitxo bat eta kakao pixka bat botaz gero, intxaurrea, laranja eta txokolateko zaporea duen esnea ateratzen

da. Muga bakarra norberaren gustuak dira. Sormena pizten dio sukaldaritzak gustatzen zaionari».

Prezioa da asmakizunak eskaintzen duen abantailarik handiena; 39,40 eurogatik eskura daiteke haziak zukutzeko tresna [www.chufamix.com](http://www.chufamix.com) webgunean. Merkaturako prezioak ikusita, azkar asko berreskura dezake dirua landare-esne zaleak. «Olo esne litro batengatik bi euro baino gehiago ordaintzen du jendeak. Olo ekologikoa belar dendan erosi eta etxean zukutzuz gero, 21 xentimotan ateratzen da litroa», dio Bartolomek.

Horren alde handia egotearen arrazoiak azaldu ditu Bartolomek: «Esne kaxa berak, produktuak garraiatzeko gasolinak, bitartekarien mozkin tarteak... horiek garestitzen dute produktuak». Izan ere, esne horietako asko Alemaniatik ekarri ohi dituzte. «Eguneroko kontsumo ohituretako beste zentzugabeberia bat: oloaren lurraldean bizi gara».

## «Abantaila zurrunbiloa»

Prezioan ez eze, beste alderdi askotan ere «abantaila zurrunbiloa» eskaintzen du etxetresnak. Batetik, esne kaxak erosi gabe zaborra sortzea saihesten da. Horrez gain, tokian tokiko produktuak bul-

tzatzen dira, eta etxe handiek kontrolatzen duten monopolioa hautsi. Asmatzaileek merkaturatzea ez dute esne begetale etxean egiteko gisa horretako beste produkturik topatu. Robotak dira bikoteak asmatutako tresnara gehien gerturaten zaionak. «Robotak badaude, baina elektrikoak dira eta oso garestiak. Edonork ezin ditu erosi». Modu azkar eta merke batean edonorentzat eskuragarria den produktua egitea izan dute xede.

Hortxata izan zen asmakizunaren abiapuntua. Bikotea Valentzian (Herrialde Katalanak) hortxata ekologikoa Internet bidez saltzen hasi zen. Pauso bat harago joan nahi izan zuten, eta txufa esnea etxean egiteko tresna sortu zuten. Ezustekoa ondoren etorri zen: «Euskal Herrian ditugun beste hazi eta fruitu lehorrekin probatu genuen, eta emaitza sekulakoa izan zen».

Fruituetatik eratorritako zukuak egitea ohikoa da, zuku naturalek eskaintzen duten zapore, propietate eta prezioak bultzatuta. «Landaretik eratorritako esneetan ez genuen aukera hori». Hainbat azokatan aurkeztu dute etxetresna, eta produktuak harrera ona izan du. «Zein azkar eta erraz egiten den ikusten dutenean, harritu egiten da jendea».



## Maratila

Aurelia Arkotxa



## Irla (II)

**J**ean-Guy Talamonik bere tesian (ikus abenduaren 19ko Maratila) Karmelo Landari Itamar Even Zoharren polisistemaren teoria ezagutarazi diolako eskerrik ematen dizkio. Teoria horren arabera, literatura sistema konplexuen juntatze leku dinamikoa da. Kontutan hartu behar delarik sistema horiek elkarrekin harremanetan direla, elkarren artean eragina badutela eta beti kanbiantzen ari direla egoera historiko ezberdinen arabera. Talamonik gogorarazten du Even Zoharren ikuspegiaren arabera, «Sistemek eta azpi sistemek hiru motazko harremanak badituztela elkarrekin: erdia versus periferia; berritzailea den sistema versus kontserbadorea den sistema; kanonikoa den sistema versus kanonikoa ez den sistema». Polisistemaren teoriaren arabera, harremanak diakronikoak edo sinkronikoak, gatazkatsuak, konfliktuak edo trukezkoak, asimetrikoak edo simetrikoak —itzulpenetan bezala— izan daitezkeelarik. Horrela, literaturren arteko «Interferentzia» ezin hobeki agertzen da: *a relation(ship) between literatures, whereby a certain literature A (a source literature) may become a source of direct or indirect loans for another literature B (a target literature)*. Eta Even Zoharren ustez hiru kasutan da gertatzen «Interferentzia»: «(a) Polisistema ez delarik oraindik kristalizatu, hots bere burua eraikitze prozeduran duen literatura bat *gaztea* delarik; (b) Literatura bat (beren artean harremanak dituzten literatura multzo handi baten barnean) *periferikoa* delarik edo *ahula delarik*, edo biak; eta (c) bihurguneak badirelarik, krisiak, edo *literary vacuums in a literature*.

Asteazkena  
2012ko abenduaren 26a

berria



Arrasateko Baserritarren Azokan ikusmin handia sortu zuen Chufamix etxetresnak. ANTON MONFORTE